

GALWAY IKASTARO TRINKOA

GOMENDATUTAKO ADINAK: 14-17 urte.
DATAK: uztailaren 10etik
 31ra. **IRAUPENA:** 3 aste.
IRTEERA: Bilbotik.
 Kontsultatu beste toki batzuetatik dauden irteerak.

HIRIA

Galway Irlanda mendebaldean, kostalde Atlantikoan dagoen 72.000 biztanleko hiri bat da. Irlandako Errepublikako hirugarren hiririk garrantzitsuen da.

Galway hiri dinamiko eta gaztea da, bi unibertsitate baititu, lehenengoa 1849an sortua.

Erdi Aroko kale ikusgarriak eta ubideak ditu eta bisitari gehien izaten duen irlandar hiri da.



ESKOLA

Ikastaro hau GMIT, Galway Mayo Institute of Technology delakoan izaten da, 1972an sortutako unibertsitate-zentroan. Hiriaren erditik 10 minutura dago garraio publikoan joanez gero, ongi komunikatuta eta hondartzatik gertu. Barruan espazio handiak ditu, kafetegia, ongi hornitutako gelak; kanpoan, eremu berdeak eta aisiarakoak eta Chill-out eremua ere baditu.



IKASTAROAK, JARDUERAK ETA IBILALDIAK

.- **Astean 22 ordu izaten dira**, astelehenetik ostiralera 09:30etik 13:00etara eta ordu erdiko atsedeneren ondoren arratsaldez ere bai astelehenetik ostegunera 14:00etatik 16:00etara; Project Works eta taldeko lanak egingo dira, lasaiago.

.- **Kirol eta kultura arloko jardueren programa** astean lau gautan,

20:00etatik 22:00etara. Ikustaldiak hirira, jolasak, irlandar dantza, diskoteka, zinea, boloak, zakur-lasterketa, "Greyhound racing", karaokea...

.- **Astean behin egun osoko ibilaldia:**

Aran uharteak, Dublin, Connemara, The Burren, Moher haitzak, Bunratty gaztelua, Folk Park...



OSTATATZEA

Kontu handiz aukeratutako **familian**, mantenu osoan; astelehenetik ostiralerako bazkariak eta ibilaldi egunetakoak, familiak berak prestatu eta poltsa batean emango dizkio ikasleari. Familiatik eskolara joateko **tokiko garraioa** barne.

